

**HIRU LAURDENAK PROIEKTUA**

**BERGARA**  
**750. urtemuga**

**1268 – 2018**

**2015.ko Azaroa**

**Gotzon Artzelus Garai**

## HIRU LAURDENAK PROIEKTUA

### **SARRERA**

Laster beteko dira 750 urte Alfontso X *Jakintsuak* Bergarari hiribildu agiria eman zionekoa. Ikuspegi politiko batetik, batzuek esan dezakete Bergara sortu zeneko efemeridea ospatu eta argudiatu dezakegula. Herritarrek, jauntxoengadik babesteko sortu zituztelako besteak beste hiribilduak.

Beste batzuek aldiz, Nafarroako Erreinua "inbaditu" zutela eta ondoziaz bertako herri izaera, nazio izaera, estatu izaera, ukatzen dutela eta hori ez dela ospatzeko kontu bat.

Nolanahi, ikuspegi historikoan sakontzeko aukera bat ere izan daiteke edo ikuspegi ezberdinak plazaratzekoa. Hau da, Gaztelak herria hartu zuenekoa azaltzeko batetik edo ain justu hori salatzekoa bestetik.

Halere, ez da dokumentu honen helburua arlo historikoaren eztabaidan sartzea.

Dokumentu hau, herritar apal baten idea/proposamen bat besterik ez da. Momentu historiko jakin baten oinarrituz, bere herriko eta herritarren ekonomian laguntzeko asmoz idazten dena.

Beraz, horixe da honen helburu nagusia. 750. Urtemugaren kontestuan ekintza posible batzuen bitartez herriko turismoan, komertzioan... modu zuzen baten eragitea. Baina ez hori bakarrik, bide batez, herriko hezkuntzan eta kulturean ere eragitea modu parte-hartzaile batean.

Ondorengo puntuetan, helburu horiek bete ahal izateko zenbait ideia azpimarratzen dira.

**HELBURUAK**

- Bergara mundura ezagutzera ematea.
- Herriko ekonomian eragin, bereziki bertako denda eta ostalaritzan kanpotarren bisitak erakarriz (herrian gastua egin dezaten).
- Herria promozioatu eta dinamizatu.
- Gonbidapen "masibo" bat burutzen duen lehen herria izanik, probetxu mediatikoa ateratzea.
- Gaztetxoei eta ez ain gaztetxoei Bergarako historia erakutsi modu parte-hartzaile batean.
- Pertsona (adin) eta talde ezberdinen arteko lan dinamikak bultzatu.

**PUBLIKO OBJETIBOAK**

Helburu hauek lortzeko, publiko jakin bati zuzendu beharko gara. Honakoa, sailkapen bat izan daiteke:

- Bergaran bizi den edonor.
- Bergarar diaspora.
  - o EHko beste edozein herritan bizi dena.
  - o Estatuko herri/hiri baten bizi dena.
  - o Atzerrian bizi dena.
- Bergararrak izan ez arren, herriarekin harreman estua daukaten pertsona edo erakundeak.
- Euskal Etxeak.
- Bergara/Vergara izena duen beste **HERRI** batzuk. Aztertu dudanez badira Uruguain, Kolonbian, Mexikon.... Beste Vergara batzuk... adibide gisa:
  - o [www.vergaraweb.com](http://www.vergaraweb.com), Uruguain
  - o [www.pueblos.ibercultura.com/Gran\\_Canaria/Vergara](http://www.pueblos.ibercultura.com/Gran_Canaria/Vergara) , Gran Canariasen
  - o Davao \_ Nueva Vergara (Filipinas): Mindanao probintziako 1848an fundatu José Cruz de Uyanguren, vasco bergararrak.
  - o
- Bergara/Vergara **ABIZENA** duten pertsona eta enpresak....

- Badira pertsonaia famatuak Vergara abizenarekin, zeharka promozioa bultzatu dezaketenak, beraien fama aprobetxauz. Zenbait adibide :

- Sofia Vergara (aktorea. "Modern Family" edo "Los Pitufos" pelikulako protagonista). Estatu Batuetan pertsona famatuenetarikoen artean dago. Ohiartzun mediatiko itzela eduki lezake pertsona hau Bergarara etortzeak. Agian, Donostiako Zinemaldikoekin hitz egin daiteke eta 2018an bera ekartzeko asmoa daukaten galdetu.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Sof%C3%ADa\\_Vergara](http://es.wikipedia.org/wiki/Sof%C3%ADa_Vergara)

- Jorge Vergara: enpresa-gizon famatua Mexikon

[https://es.wikipedia.org/wiki/Jorge\\_Vergara](https://es.wikipedia.org/wiki/Jorge_Vergara)

- Gabriela Vergara (aktorea)

[http://es.wikipedia.org/wiki/Gabriela\\_Vergara](http://es.wikipedia.org/wiki/Gabriela_Vergara)

- Bernardo Vergara (historialari/komikilaria)

[http://es.wikipedia.org/wiki/Bernardo\\_Vergara](http://es.wikipedia.org/wiki/Bernardo_Vergara)

.....

## **EKINTZA POSIBLEAK**

2017-2018 urteetan zehar burutu daitezkeen zenbait ekintza.

- Gutun bat bidali publiko objetiboari udalaren izenean herrira gonbidatuz.
- Herriko historia batzen duen antzerki herrikoia, liburua, webgunea...
- Hitzaldiak: wolframioaren eragina gure bizitzan, Bergarako Besarkada eta pakea, Errege seminarioa, Ehungintza, Nafarroako Erreinua...
- Laboratorium-ean erakusketak.
- Karta Puebla + irudi artxiboaren erakusketa.
- Bertako pertsona nagusiek, herriko gaztetxoenei Bergaran gertatu ziren Kondairak, pasadizoak..... kontatzea. Nolabait, ikuspegi historiko tradizionaletik kanpo geratzen diren eta gehiengoarentzat ezezagunak diren kontuak. Agian, San Joxeperi eskatu ahal zaio bertako nagusiek bitxikeri horiek batu eta aurkeztea....
- Udal artxiboko argazki zaharrak, etab....
- Merchandising:
  - Ikur bat sortu, herriko dendetan, etxeetan, eraikin publikoetan agerian jartzeko (pegatina bat, banderatzu bat....). Edo

beharbada saltzekoa izan daitekeena, herriko denda eta webgunean.

- Azken finean, gonbidapena dela eta, Bergarara gerturatzeko direnei "pergamino" bat eman. Santiagoko Bidea egiten duten peregrinoei ematen zaien antzera, Bergarara etortzen direnei sari bat (pergamino modukoa) eman.
- Bergarako izen ona zabaltzen laguntzen dutenei, Bergarako enbajadore izendatu eta pergaminoa eman. Eskoziako ekonomiarentzat ain garrantzitsu eta arrakastatsu izan den Global Scott formularen oinarrituz:

<http://www.globalscot.com/>

### **HEZKUNTZA eta KULTURA**

Aukera paregabea izan daiteke ikastetxeekin eta kultur talde ezeberdinekin, elkarlanean, hainbat ekintza burutzeko. Ze helbururekin?? Gure herriko historiak altxor ugari ditu eta herritar gehiengoak ez du ezagutzen. Gaiak zehaztu eta ekintza kontretuak elkarrekin egin eta ikastea litzateke helburu nagusia.

Izan ere, sortuko liratekeen elementu didaktikoak, betirako izango dira, hau da beste belaunaldi batzuetarako ere balioko lukete. Ez litzake ekimen puntuala izango.

Beste 250 urte barru ez gara gu hemen izango, baina Bergarak 1.000 urte betetzen dituenean, ordukoek izango dute zertan oinarritu....

### **ANTOLAKETA POSIBLEA**

Planteamentu parte hartzaile batetik egin beharko litzateke hau gutzia, baldin eta ekimenak arrakasta izatea nahi badugu.

Horregatik, lehen idatzia Bergarako udala osatzen zuten alderdi guztie bidali nien proiektu hau 2012ko otsailean. Adostasuna beharko litzateke bergararren etxean.

Hortik aurrera, batzorde bat eratu ahal da eta dinamizatzailea izango den pertsona bat izendatu.

Hezkuntza arloan, ikastetxeek zer esan handia daukate. Sortu ahal dira, beraiekin adostasunean, urtean zehar ekintzak, lanak, etab.... 3 ikastetxe nagusietako eta Migel Altunako ikasleekin, lantalde bat sortu, sare sozialetan eta hemendik kanpo promozio lanak egiteko. Ni neu prest nago lantalde posible hori dinamizatzeko.

Kultura mailan berriz, Bergarak hainbat talde dauzka eta guztiekin batera urte osoko plangintza bat osatu daiteke Bergarako historia gaitzat hartuz.

**PROMOZIOA**

- Kanpora
  - o Sare Sozialak: Herriko gazteek asko lagundu dezakete, teknologia berriak erabiliz kanpaina hau arrakastatsua izatea. Facebook eta Twitterren diren Vergara/Bergarar guztiak gurera gonbidatuz. Ikastetxeekin kontatu daiteke horretarako.
  - o Bergara/Vergara izen/abizenen zentsoa: Marketing zuzeneko ekintza egin nahi bada (esaterako gutun bat bidali Bergarara etortzeko gonbidatuz), badira hainbat enpresa datuak saltzen dituztenak (lege kontuak bermatuz). Enpresa hauek eman dezake Estatu Espainolean Bergara/Vergara izena duten partikularren eta enpresen kopurua.  
  
<http://bases-datos.schober.es/> enpresarengana jo nuen informazio eske. Esan zidatenez "konteoa" egiteagatik, hau da, zenbat erakunde/familia diren Bergara/Vergara izena dutenak 300 euro + BEZa kobratzen dute (150 partikularrendatik eta beste horrenbeste enpresenagatik). Gero, ematen duten datu kopurua marketing zuzeneko ekintzarako interesgarria dela erabakitzen bada, Datu Basea erostea tokatuko litzateke.
  - o Bergarar Diaspora
  - o Euskal Etxeak.

**ARLO EKONOMIKOA**

- Eusko Jaurlaritzako Turismo sailak eta Basquetourrek dirulaguntzak ematen dituztela uste dut. Baita GFAk ere. Ekintza/produktu hau badlitzatza horietan bete-betean sartu daiteke.
- 2017 eta 2018ko aurrekontuetan partida bat sortu?
- Denda eta enpresen ekarpen ekonomikoak.
- Ekimenak izan dezaketen gastua kalkulatu.
- ROla kalkulatu: inbertsioak etorrerak...
- Agian, mereziko luke izaera juridiko bat sortzea (fundazio bat, elkarte bat....) sortzea gardentasuna bermatu eta operatiboagoak izateko??. Berelan Foroaren ekintza plan eta aurrekontuetan???

Borondate on guztiaz.

Gotzon Arzelus Garai